① **Begiratu mapari eta erantzun:**

a) Zer adierazten du kolore bakoitzak?

b) Zer zona da handiagoa, Al Andalus edo lurralde kristaua?

c) Zer lurraldetan zeuden Balear uharteak?

d) Zer hiri daude adierazita lurralde musulmanean?

② **Aukeratu erantzun egokia:**

1.-Bisigodoek zenbat mendetan okupatu zuten Iberiar Penintsula?

a) 2 mendetan b) 3 mendetan c) 4 mendetan

2.-Zein izan zen Bisigodo erreinuaren hiriburua?

a) Toledo b) Al – Andalus c) Hispania

3.-Nora joan zen biztanleria Bisigodoen etorrerarekin?

a) Herrietara b) Hirietara c) Landetara

4.- Zein urtetan iritsi ziren Musulmanak Iberiar penintsulara?

a) 711. Urtean b) 511. Urtean c) 921. Urtean

5.-Nola deitu zuten Iberiar penintsula musulmanek?

a) Hispania b) Kaliferria c) Al – Andalus

6.-Zein izan zen erreinu Musulmanaren hiriburua?

a) Toledo b) Al – Andalus c) Kordoba

7.-Zein eraikuntza eraiki zituzten?

a) Gazteluak eta tenpluak b) Meskitak eta jauregiak c) Gazteluak eta saunak

③ **Osatu hurrengo taula:**

	Bisigodoak	Musulmanak
... tik zetozen.		
... mendean iritsi ziren.		
... ondoren izan ziren.		
... zuten hiriburu		

④ **Ordenatu kronologikoki. Idatzi 1, 2, 3, 4 eta 5.**

☐ Emirerria ☐ Granadako emirerria ☐ Taifa-erreinuak

☐ Kordobako kalifa-herria ☐ Musulmanen konkista

LIVEWORKSHEETS